



PRENTSA OHARRA: 2020.09.24

## Irene Larrazak hizkuntza ez-hegemonikoetan aritzen diren institutuen ekarpena aldarrikatu du, eskubide osoko hizkuntza bilaka daitezen

**- Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak hizkuntza aniztasuna eta “ezberdintasunetik” elkar ulertzen ikastea defendatu ditu Berlinen, Instituto Cervanteseko, Institut Ramon Lulleko eta Consello da Cultura Galegako arduradunekin bildu ostean.**

Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak gaur Berlinen adierazi duenez, hizkuntza ez-hegemonikoetan aritzen diren institutuek, Etxepare Euskal Institutuak euskararekin egiten duen bezala, "erantzukizun handia" dute hizkuntza horiek "ezagutu, onartu, erabili eta balora daitezen, eta eskubide osoko hizkuntzak bilakatu daitezen".

Instituto Cervanteseko, Institut Ramon Lulleko eta Consello da Cultura Galegako arduradunekin izandako bileran, Larrazak zera baieztatu du: “balioetan oinarritutako Europa honetan, ezinbestekoa da homogeneotasunetik beharrean, desberdintasunetik elkar ulertzen ikastea”.

Institutuko zuzendariaren ustez, “ezinezkoa da komunitatea sortzea edo zabaltzea, aniztasuna aintzat hartuta ez bada; eremu guztietan”. “Hiztun gutxiko eta era berean gutxiuak diren hizkuntzetako ordezkariok ekarpen handia egin dezakegula uste dut, eleaniztasunaren kudeaketan dugun esperientzia zabalari esker”, gehitu du.

Hizkuntzen Europako Egunaren testuinguruan, Larrazak aurrez aurreko lan bilera bat izan du alemaniar hiriburuko Instituto Cervantesen egoitzan, Luis García Montero erakunde horren zuzendariarekin, Rosario Álvarez Consello da Cultura Galegako



zuzendariarekin eta María José Gálvez Liburuaren zuzendari nagusiarekin. Institut Ramon Llull Alemanian duen arduradun Silvia Gonzálezek ordezkatu du.

Erakunde guztiek adierazi dutenez, eleaniztasuna indartzeko lau erakundeen arteko estrategiak koordinatzeko nahiak bere horretan jarraitzen du, maiatzaren 26an Instituto Cervantesen, Institut Ramon Llullen, Consello da Cultura Galega-ren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lehen lankidetzak-akordioan hitzartu zen bezala.

Bileraren ostean, Luis Garcia Montero Instituto Cervanteseko zuzendariak Estatu espainiarraren eleaniztasuna defendatu du, eta "hainbeste hizkuntza dituen herrialde batean bizitzeak duen aberastasuna ulertzea" beharrezkoa dela esan du. Halaber, hizkuntza koofizialek "mundua bizitzeko modu ezberdinak" eskaintzen dituztela esan du, "hizkuntza horiek hitz egiten den lurraldearentzako ez ezik, Espainia osoarentzat aberasgarri baitira". "Nahiago nuke, elebidun izateko zortea duten herritarrek, hizkuntza horiek galtzeko zorte txarra eduki ez dezaten", nabarmendu du.

Bestalde, Consello da Cultura Galega-ko zuzendariak adierazi duenez, "hizkuntza eta kultura aniztasuna Europako DNA-n dago, milaka urtez hizkuntzak sortu eta kultura propioetan eboluzionatu duten herriak gordetzen dituen lurralde batean bizi baikara".

Rosario Alvarezek gaineratu duenez, "Hemen ordezkatuta dauden erakundeok elkarrekin ibiltzeko borondate irmoa dugu, Estatu espainiarraren mugen barruan eta kanpoan, kulturen eta hizkuntzen mosaiko horren bultzada sortzailearen aniztasuna erakusteko. Bakoitzaren nortasunak partekatutako balioa eta elkarrekiko errespetua eta estimua dira bizikidetzak demokratikoaren oinarria".

Lau erakundeen arteko bilerek arratsaldean (19: 00etan) jarraituko dute *Komunikazioa eta aniztasuna. **Comunicación y diversidad. El futuro del multilingüismo en Europa*** (Komunikazioa eta aniztasuna. Eleaniztasunaren etorkizuna Europan) izeneko mahai-inguruan. Saioa jendearentzat irekia izango da eta Instituto Cervantesen Youtubeko kanaletik eskainiko da.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

Honako partaideak izango dira arratsaldeko ekitaldian: **Luis García Montero**, gaztelaniaren ordezkari; **Jordi Amat**, filologo eta idazlea, katalanaren ordezkari (bideokonferentzia bidez); **Juan José Álvarez**, Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna, euskararen ordezkari; **Ramon Villares**, historialaria, galizieraren ordezkari, eta **María José Galvez**, Liburuaren zuzendari nagusia. **Dieter Ingenschay** irakasleak bideratuko du eztabaida, eta alemaniarren ikuspegia emango dio Espainiako errealitate eleaniztunari.

#### **Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)